



Gizona illargian

Orra Apolo XI-gna., bere txangoa asterakoan. Espazioan barna bidea urratuz, Illargia jo eta berriz Lurrera itzuli arte ez da geldituko. Barnean joan diren astronautek ikusi ote dute, gero, an Juaniko Txistularirik? Baietz esaten digu Leandro jaun Arrolakoak.

Iñoz gizon guztiak zerura begira egon badira, joan den uztailiko 20-an. Lehenbiziko aldiz astronautek illargia bere oiñekin jo zuteneko artan. Alako zirrara larri batek astindu ginduan guztiok goitik behera. Jainkoak gizonari eman zion argia orrenbesteraño el zitekeanik, beharbada ez genduan uste.

Aita Santuak gogoratu digu alere

tramankulu eta tresna berrien mozkorrak ez gaitzala gehiegi ar. Aur errukarriak Biafran ta Sudanen ta Vietnamen goseak iltzen ari diren bitartean ez dugula zer arroturik. Arrotzeko ez, baiña negar egiteko eta lotsatzeko baita gaur zenbait tokitan gertatzen ari dena. Nolanahi ere, Apolo XI-ren txangoa ez da, ez, gutxiestekoa.

Illargia, gauaz bere argi orixta, mehe,

beilegiakin argitzen gaituan satellite hori, Lurraren neskame zintzo maitagarria, beti izan da gizonentzat amaika ipuiren iturri eta sortzaille. Bai. Giza-irudimenak amaika istorio-misterio asmatu ditu illargia dela ta ez dela. Illargia bete-betean ikusten denean, an alako beltzune bat agiri ohi da. Eta Euskalerriko ipuiek ara zer dioten: gizon bat dagoela an, bere sarda eskuan eta ota-sendorra bizkarrean. Apaiz eiztari bat omen da, gainera, an dagoena, konsagrazioko denboran erbia arrapatzeagatik, meza utzi eta eizera joan zena. Eta hori egin zuelako, Jainkoak illargira bialdu zuen. Juaniko Txistularia edo Txistrularia deitzen zaio apaiz orri Arantzazu inguru ontako erri ipuietan.

Ara Juaniko orren istoria, Leandro Arregi jaunak oraintsu kontatu izan digun bezala. L. V.

Lenagoko denbora batian, Arabako partian, mendì ondo bateko erri batian, apaiz bat zegon. Ekun danetan eizera jun bear izaten zun bere txakurrakin. Astegunetan ere bai eta jai egunetan ere bai. Eta orduan ere jaia etor zan, ta jai goizian ere jun ein zan mendira. Bere txakurra artu eta meza emateko denborako etortzeko asmotan jun ein zan. Baiña txakur orrek erbia atera, ta **venga ta venga** bera zegon tokira ez zan etortzen, eta denbora asko pasatu ein zan. Bera larrittuta zegon, estu; ia meza emateko ordua etorritta, eta artien mendien.

Baiño utzi danaì, eta or dator menditik bera errira. Erriko jende guztia eliz-ingurura juntatuta zegon, noiz apaiza etorriko. Eta ala zuzenian sartu zan elizara, eta jantzi, eta venga! altarara meza ematera. Meza ematen ari dala, beti erbia zeukan buruan. Eta etortzen da txakurra inguru samarrera



Leandro
Arregi

“au-au-au-au!” bere erbi orrekin, eta an zegon ernegatzen.

Da alako batian, **alzar**-eko denbora, meza erdiko denbora etorri zanian, or dator txakur ori, portikutik pasatzen da an inguruan, eliz inguruan, bertan erbi ori aurretik duala, ta ezin egon zan ifiolaz ere. Ta buelta ein, jaso eskua eta esan zien elizako jendieri piskatxo baten egoteko, bera segittuan etorriko zala ta. Ta utzi bertanbera, ta ra! jun zan, eta baitta erbia arrapatu ere. Eta atzera etor zan.

Baiño Jaungoikuak ori egin zualako, izugarri kastigatu zuan. Esan zion: “Bueno, zuk au egin dezu, baiño nik ematen dizudana bizkarrian artu eta iretargian an ibilliko zera, orain, gero eta beti, zere txakurrakin “au-au-au!” eta “fio-fio-fio” txistua juakin an ibilliko zera. Eta oin amerikanoak jun diranak ere zerbait aditz aditu dutela, ori notizi ori beintzat etorri da, eta itxuria orain ere Juanito Txistulari izena duen apaiz ori an ibilliko da...

Leandro Arregi

(Arantzazuko Arrola baserrikoa)
Magnetofoid artua, 25-7-1969)